

Begiaren hiria



ARITZ GALARRAGA

Lekurik bada non bat egiten duten lurrak eta urak, kontinentek eta itsasoak, Europak eta Mediterraneoak, leku hori izango da Venezia, seguruenera. Urez inguratutako lur zatia izanik, noiz ez den urez estalia, sartzen da Mediterraneo Europa beraren etxe atarira. Venezia, uretatik sortutako hiria, uraren azpian hondoratuko dena, “hiriaren patua, azken finean, Atlantidarena izango dela”, Joseph Brodskyk *Ur-marka* ezin gozoagoan idatzi zuen bezala; “uretan dagoen hiri hau gaindituko lukeen gauza bakarria airean eraikitako hiri bat izango litzateke”. Hiri guztiak baitira zoragarriak ilunabarrean, baina batzuk beste batzuk baino gehiago.

Ez da hori Brodskyk hasieran izan zuen inpresioa: “Probinziaren batera iristen ari nintzela ematen zuen, leku ezezagun eta ez-deus batera, norberaren jaioterria beharbada, urte asko kanpoan eman eta gero”. Baina, pixkanaka, hiria erdigunera sartzen ari zitzaiola sentitzen hasi zen: “Zuri-beltzekoa zen, literaturatik, edo negutik, sortzen den zerbaiti dagokion bezala: aristokratikoa, ilun samarra, hotza, gutxi argizaturik, Vivaldiren eta Cherubiniren akordeak hor nonbait”. Hala pasa zituen bertan 17 negu, beste zentzumenen aldean, ikusmena fintzen zuela: “Zeren hau begiaren hiria baita; gainerako zentzumenek bigarren mailako paper ahula baino ez dute”. Eta, ez dezagun ahazt, begiratzen duguna gara, neurri batean behintzat.

Angel Errok gaztigitzen gaitu, hitzatzean: “Oker dabil Venezia gehiago jakiteko asmoz liburu honetara hurbiltzen dena”. Edo Rikardo Arregi euskaratzaileak: “ez, noski, gida liburu bat, ez turistak bisitatzeko ez dituzten leku bereziak bisitatzeko gomendatzen duen horietakoa, ezta bidaia liburua ere. Zalantza egiten dut Venezia bera den liburu honen gai nagusia”. Niri neuri balio izan dit maitatzen hasteko bestela estimu berezirik ez nion Venezia, Montesquieuren hitzekin esateko, arrainak soilik egon beharko lirakeen leku bat. ●



Memoria historikoa

Cabo Quilatesen omenezko gurutzea bota du Ernaik Barakaldon, eta Erandioko monumentu frankista ere eurek eraitsi dute. Ekintza horien ostean, Bizkaian ez da geratzen monumentu frankista publikorik, nabarmendu dutenez.

Ukrainako gerra

Pablo Gonzálezek hilabete egin du Polonian preso, senide eta abokatuarekin hitz egin gabe. Rzeszóko presondegian dago kazetaria, espioitza delitua leporatuta. Behin-behineko espetxea agindu dio epaileak, maiatzaren 29ra arte.

